



Kulturaren  
Euskal Behatokia  
Observatorio Vasco  
de la Cultura



2024

# 2024ko jarduerara- plana



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLITICA LINGÜISTICA



# 2024ko jarduera-plana

## › 1. Aurkezpena

## › 2. Estatistika-eragiketak

- › 1.1. Emaiza
- › 1.2. Landa-lanaren hasiera
- › 1.3. Lankidetzak

## › 3. Azterketa kualitatiboak

- › a) Azterlan sektorialen ildoak  
Politiken diseinuarekin eta ebaluazioarekin lotuta  
Publikoekin lotuta
- › b) Kultura sektorearen erronkak
- › c) Sektoreetako eskariak

**Laguntza teknikoa:**  
ICC-CONSULTORS CULTURALS, SL

**Itzulpena:**  
LETE ITZULPENAK-  
TRADUCCIONES, SL

**Diseinua eta maketazioa:**  
DIAGONAL 360°

**KULTURAREN EUSKAL  
BEHATOKIA**

Donostia-San Sebastián kalea, 1  
01010 Vitoria-Gasteiz - Álava  
T. 945 016 947  
[kulturabehatokia@euskadi.eus](mailto:kulturabehatokia@euskadi.eus)

# 1. Aurkezpena

Jarduera-planak 2024. urterako aurreikusitako ikerketen katalogoa jasotzen du, bai ikuspegi kuantitatibotik, bai kualitatibotik.

Estatistikaren arloan, Euskal Herriko Parte-hartze kulturalari buruzko Inkestaren emaitzen zabalkundeak eta Kulturaren eta sormen-sektoreetan egindako gastu publikoaren estatistikak baldintzatzen dute programa. Aldi berean, Arteen eta Industrien eta Sormenezko Industrien Estatistikaren edizio berriaren landa-lanari ekingo zaio.

Nabarmentzekoa da, halaber, beste erakunde batzuekin lankidetzan egindako azterlanen ildoak, hala nola Orkestrarekin eta EHUrekin.

Arlo kualitatiboan, proposamenak sektore-agenda, testuinguru sozioekonomiko orokorra eta kultura-politikak markatzen dituzten gaiei buruzko azterlan berriak jasotzen ditu.

Kulturkliken inguruko lanak eta komunikazioaren bidez Behatokiaren lana ezagutarazteko ahaleginak osatuko dute aurtengo programa. Behatokiaren helburua errealitatea eraldatzen laguntzea da, datuak eta ezagutza emanaz.

## 2. Estatistika-eragiketak

Estatistikaren alorrean, nobedade nagusia Euskal Herriko Parte-hartze kulturalari buruzko 2023ko Inkestaren eskutik etorriko da.2023.

### 1.1. Emaitzak

#### Euskal Herriko parte-hartze kulturalari buruzko inkesta 2023

Biztanleen ohiturak, praktikak eta parte-hartze kulturala ezagutzeko iturri nagusia da. Xehetasun- eta zehaztasun-mailak funtsezko tresna bihurtzen dute, bai gure testuinguruan parte-hartze kulturalaren gakoak testatzeko, bai politika kulturalak diseinatzeko.

#### Kulturan eta sormen-sektoreetan egindako finantzaketaren eta gastu publikoaren estatistika 2022

Urteko beste nobedade bat kulturan eta sormen-sektoreetan egindako gastu publikoaren eragiketaren emaitzak izango dira. Azterlan hori ezinbestekoa da

euskal administrazio publikoek sektore horietan egiten duten inbertsioa, banaketa eta gastuaren xedea ezagutzeko. Arlo horietako enplegu publikoei buruzko informazioa ere jasotzen du.

### 1.2. Landa-lanaren hasiera

#### Arteen, kultura-industrien eta sormen-industrien estatistika 2023

Aurten hasiko dira Arte eta Industria Kulturalen estatistikaren bederatzigarren edizioa eta Industria Sortzaileen Estatistikaren laugarren edizioa.

### 1.3. Lankidetzak

Behatokiak akordioak ditu unibertsitate arloan ikerketan diharduten bi erakunderekin:

- Orkestra, Lehiakortasunaren Euskal Institutua, Deustu Fundazioarena: kultura- eta sormen-industrien posizionamendu-azterketak.s.

- EHU-UPVko NOR Ikerketa taldea, Applika proiektuan: gazteen ikus-entzunezko kontsumoari buruzko azterlanak.

Azkenik, eta beste esparru batean, Behatokiak Eustatekin duen lankidetzaren azpimarratu behar da.

# 3. Azterketa kualitatiboak

Programa Behatokiak berak egiten dituen proposamenetan eta Jarraipen Batzordean planteatzen direnetan oinarrituta diseinatzen da.

Ondoren, 2024an egin beharreko lau azterlan-proposamen egin dira, eta Batzordeak proposatuta beste bi sartzeko aukera zabalik utzi da.

## a) Azterlan sektorialen ildoak

### Politiken diseinuarekin eta ebaluazioarekin lotuta

#### Jarraipen- eta ebaluazio-adierazleen ereduak.

Aldaketa sozial, ekonomiko eta teknologiko sakonak gertatzen ari diren honetan, ezinbestekoa da kultura-politiken jarraipen- eta ebaluazio-sistemak indartzea. Ikuspegi sektorialetik zein zeharkakotik, kultura-

politikek begirada berriak txertatzen dituzte (iraunkortasuna, ingurune digitala...), tresna berriak bultzatzen dituzte, gobernantza ulertzeko modu berriak onartzen dituzte, etab. Estrategiak, helburuak eta egiteko moduak aldatzen ari dira. Era berean, kultura-politikak kudeatzen dituzten taldeetan belaunaldi-ordezkapena egiten ari gara.

Behatokiak, adierazleei dagokienez egiten duen jakintzarekin, tresna erabilgarriak eman diezazkioke sektore osoari, eragileek informazioa izan dezaten beren kultura-politikak ebaluatzeko.

### Publikoekin lotuta.

Parte-hartze kulturalari buruzko inkestatik datozen datuak kontuan hartuta, emaitza orokorren txostenen osagarri diren bi analisi egingo dira. Alde batetik, kulturen parte hartzeko moduak azaltzeko aldagaien azterketa, identitatearen ardatzean sakonduz. Bestalde, kulturaren publikoaren

segmentazioa, non fokua praktika kulturalak izango diren, publikoen profilak eta ezaugarri soziologikoak lortzeko helburuarekin.

## b) Kultura sektorearen erronkak

### Kulturak zahartze aktiboan duen zeregina.

Eusko Jaurlaritzak adinekoekiko euskal estrategia bultzatzen du, zahartze aktiboa sustatzeko eta bizitza osoa lortzeko. Datozen urteetako Euskadiko gerontologia-plangintzarako oinarria da. Testuinguru horretan, biztanleriaren bizitza-luzetasunak, baby boomer-en erretiroak, osasun- eta gaixotasun-ereduek, adinekoen profilen aniztasunak edo iraupen luzeko zainketa-sistemak eskaera berrietara egokitzeko beharrak zahartzaroaren eta zahartzaroaren kontzeptua bera birplanteatzea eskatzen dute.

Errealitate horren aurrean, azterlanak tresnak eskaini nahi ditu kulturatik, gizarte-

eraldaketa sakon horretan laguntzeko. Nola sustatu parte-hartze aktiboa, nola lan egin lankidetzan gizarte- eta egoitza-zentroekin, nola bultzatu gaikuntza eta sormena bizitzan zehar, horiek dira ikerketa honetan jorratu beharreko gaietako batzuk.

---

### **Sorkuntza eta adimen artifiziala.**

---

Zalantzarik gabe, adimen artifizialaren erabilera eztabaida eta kezka gehien sortzen duen gaietako bat bihurtu da. Behatokiak modu zabalean landu zuen gaia 2023an argitaratutako azterlan batean. Bertan, tresna digital berriek dituzten inplikazioak errepasatzen ziren, bi sektoreri arreta berezia eskainiz: bideojokoei eta hizkuntzaren industriei. Une honetan, IA sorkuntzari aplikatzeak kezkatzen du. Dirulaguntzen eta sarien araudiak egokitzen ari dira, egiletzan izango dituen ondorioak aztertzen ari dira, IAren sortutako obrei erakusketak eskaintzen hasi dira, etab. Azterlan hau sorkuntzan IAren erabilerarekin lotutako gai horiei eta beste batzuei erantzuten saiatuko da.

## **c) Sektoreetako eskariak**

Behatokiak zabalik du sektoreei irekitako bide bat, lankidetzako azterlanei ekiteko.



Kulturaren  
Euskal Behatokia  
Observatorio Vasco  
de la Cultura

---

## 2024ko jarduera- plana

---



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

